

# Goibekokale

1997ko martxo. 22zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA

2 urte

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1ª EZK.

herrixa dantzan

Urte 1

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

## Ozkarbi elkartearen oharra

Bazkide guztioi jakinarazten zaizue, urtero bezala, aurten ere maiatzaren lehenengo domekan (maiatzaren 4a) egingo dugula soziedadeko bazkaria. Bazkariaren berri gehiago zuen etxeetan jasoko duzue, hala ere, gogorazten zaizue bazkariara joan ahal izateko nahikoa dela zuen izen-abizenak papertxo batean jartzea, eta horrekin batera bostehun pezeta botatzea soziedadeko tabernako buzoira. Gogoratu izena emateko azken eguna apirilaren 20a izango dela.

## **Zuzendaritza batzordea**

## **Bake proposamena = Alternatiba demokratikoa.**

1995eko Apirilaren 20an ETAK Euskal Herriak bizi duen gatazka gainditzeko proposamena kaleratu zuen. Bertan "su etena" iragartzen zuen baldin eta Euskal Herrian benetako demokrazia eskuratzeko urratsak ematen baziren.

Euskal Herria eta espaniar Estatuaren arteko gatazka gainditzeko Euskal Herria izan behar du hitza. Euskal gizarteak da bere arazoak konpon ditzakeena, bere etorkizuna erabakitzeko ahalmena izan behar duena, ETAREN zeregin nagusia, hitz hori errespetatu eta errespetatua izan dadin borrokatzea eta Euskal Herriak bere etorkizuna libreki hautatu ahal izateko gutxienezko baldintzak eta bermeak lortzea da. Euskal Herriko gizarteak hitza izan dezan, egungo txantaila, hipoteka, muga politiko eta oztupoak desagertarazi behar dira.

Euskal gizartearen hitza inor ordezkaz ez dezan, dagokion guztian zuzenean parte hartu eta erabaki dezan: **Alternatiba demokratikoa.**

## **ETA eta Estatu espainolaren artean itundu beharrekoa.**

### Autodeterminazio eskubidea eta lurraldeen batasuna aintzakotzat hartzea.

Autodeterminazio eskubidea ez da jarrera politikoa, herri garen aldetik zor zaigun eskubide demokratikoa baizik. Eskubide hau noiz, nola eta zertarako gauzatzen den euskal herritar guztioi dagokigun arren, eskubidea halakotzat hartua izango dela segurtatu beharra dago. Euskal Herriak askatasun osoz bere etorkizuna erabaki behar duelako ezinbestean.

Euskal Herria aintzakotzat hartua izan dadin egungo lurraldeen zatiketa gainditu beharra dago, lurraldeen batasuna onartu eta egungo muga instituzionalak suntsituz. Lurraldeen batasuna nola gauzatu, Euskal Herria nola eratu eta antzerakoak, Euskal Herriaren subirautzako erabakiak adieraziko du.

### Euskal herrian irekiko den prozezu demokratikoaren emaitza errespetatzeaz.

Herriaren hitzari ezin mugarik jarri. Horrenbestez, prozezu demokratiko honen garapena eta emaitzak direnak direla errespetatuko dituela segurtatu behar du Estatu espainolak.

Prozezu demokratiko hau bideratzeko gutxieneko baldintza da herritar guztiek bertan parte hartu ahal izatea, inongo presiorik jasan gabe. Beraz, prozezu demokratikoa gorpuztu dadin ezinbestekoa izango da amnistia orokorra erdiestea, preso guztiak kalera irten eta ihesi joandako guztiak osteratu itzulita.

Era berean, ezinbestez neu-

riak hartu behar dira indar armatu espainolek prozezuaren parte hartu ez dezaten.

## **Euskal Herritarren artean eztabaidatu eta itundu beharrekoa.**

Euskal herritarrei bakarrik dagozkien arazoak erabaki ahal izateko hasi behar den prozezu demokratikoan, sindikatuek, elkarteek, mugimendu sozialek, alderdi politikoek, instituzioek eta, hitz batez, gizarte osoak hartu behar du parte, aukerak eta eztabaidarako marko egokiak zehaztuz.

Prozezu honetan zehar, gutxienez gai hauek zehaztu behar dira: autodeterminazio eskubidearen garapena (formulazioa, metodologia, aukerak, epeak, etab.); lurraldeen batasunaren eraikuntza eta formulazioa; itundu behar den erakunde instituzionalaren eskuduntzak, alde aurretik erabakitako inongo mugarik izan gabe; Euskal Herria eskalduntzeko plangintza; plangintza eta eredu sozio-ekonomikoa; Euskal Herriaren desmilitarizazioa (Armaden betekizuna, suntziketa eta polizi indarren osaketa eta izaera); hezkuntza alorreko eskubideak; askatasun demokratikoak...

Mezu hau gizarteratzeagatik, "justizi espainolak" Herri Batasuneko zuzendaritza politiko osoa kartzelaratzeko agindua eman du. "Justizi espainolak" GALEkin zerikusirik izandako guztiak kalean dauzka. Ajuria-eneako itunkideek gizarte gaur egungo giro gatazkatsuari etsimendu behar dela esaten digute. Zeintzuk dira hemen benetan bakea nahi dutenak?

## **Demokrazia euskal herriarentzat!!!**

LENITZ eskualdeko LAB

**AENOR**  
**ER**  
**Empresa Registrada**  
**ER-714/2/96**

# *Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



## "BI"

**A**spalditxo irakurri nuen bat BItan banatzen dela. Bada, hori sinistuta baldin bazaudete sentitzen dut gezur borobila dela esan behar izatea. Zuek San Blasetan bidali zenidaten opila hamaika puskatan zatituta ahoratu nuen. Aspaldi honetan ez didate horrelako "soborno" gozo eta originalik egin. Ez horixe!

Baina, bestalde, ez da egia txikiagoa, zuen aldizkariak BI urte betetzen dituela eta, artikuluxka hau idazteko ipini didazuen gaia bera ere laburra bezain zaila dela: "BI". Bifondeizuela! Hau txukun samar ateratzen bada, datorren urtean "HIRU" zenbakiari buruz idazteko Bi opil bidali beharko dizkidazue, bestela... jai duzue! (Txantxetan zihoan hori, noski!)

Kontuak kontu, halere, zuen aldizkariak, "Goibekokale" izeneko honek, BI urte bete ditu. Badakit herri aldizkari bat aurrera

ateratzeak ze lanak ematen dituen eta, hitz artean galdu aurretik, ahaztu baino lehen, zorionak eman nahi nizkizueke lan honetan ari zareten guztioi. Gutxienez beste BI...mila bete ditzala!

Gure herrian, GaBirian badugu geurea, "Makilari" du izena hark. A! Bide batez nahi al duzue sekretutxo bat kontatzea? GaBiria altu dago, 400 metrotik gora, eta gu mutikotan harro geunden oso Gupuzkoako altu-netakoa zelako. Txikitan beti esaten ziguten, ordea, bazirela beste BI herri gutxienez altuago zeudenak. Bata Bldania zen eta bestea... zuen Elgeta. Geroztik ezagutu dut


nik eta beti iruditu zait GI-tik BI-rako atea, Gipuzkoatik Blzkaira sartzeko ataka, hor arkupetik pasatzerakoan batipat. Ez dago urruti gainera Elorriorantz goazela benetako lur eremu muga.

Hortxe dituzue, bada, zuen urtemuga dela eta nik agindutako BI hitzak. Gozo-gozo egin ospakizuna eta BIzi luzaro. Ez adiorik!

Andoni Aizpuru



Elene gure alabak ere, BI urte bete ditu martxoan.




Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea



## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Iratzabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikiak:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Andoni Aizpuru eta Enrike Gorrotxategi. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 78.90.85 faxa: 78.90.43). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## HIRUGARREN URTEARI GOGOTIK EKINEZ

-Herriarren batek Internet sarea erabili nahiko balu laster izango du aukera. Talde bat prestatzen dago informazioa eman eta erabilerazazaltzeko. Aldizkarian dagoen ordenagailua prest horretarako-

Bi urte bete ditu elgetarrron aldizkariak eta hirugarrenari ere gogotik hasiko diogu. Taldea zabaltzeaz gain aldizkaria hobetzeko azpiegitura teknikoa handitu dugu. Bi ordenagailu ditugu eta erositako azkena internetera konektatu dugu. Laster internet sarea ezagutu eta erabili nahi duenari atea irekiko dizkiogu. Horretarako talde bat prestatzen ari da eta azalpenak eman edota sareak dituen zerbitzuak erabiltzen erakutsiko dute.

600 ale banatzen ditugu eta Angiozarko txoko guztietara ere heltzen da **Goibekokale**. Euskal Herrian eta munduan zehar ibiltari ezaguna egin da eta askok jasotzen dute herriko berri aldizkariaren bidez.

Talde eta herri handia ez bagara ere, laguntzak beti datoz ondo eta edonor animatzen dugu guregana hurbildu eta proposamen berriak egin edo eginkizunen bat aurrera eramateko.



Anje Duhaldekjende asko erakarri zuen **Goibekokalen** bigarren urtemuga ospatzera.

## SALBADOR ERMITA KARABINAZ KALTE-TUA

Salbador ermitan izandako kalteak 30.000 pezetarainoak dira. Ateak eta zerrailak apurtzen saiatu ziren nonbait eta lortu ez zutenean, karabina tiro egin zuten barrura. Ondorioz, argiak eta lorontziak apurtu dituzte. Zerrailak ere kaltetu dira.

Ermita duela gutxi berriztu zuten eta batzordekoek negargarriztat jo dituzte ekintza hauek. Udaletxean denuntzia sartu ondoren, udalak zabalduko duen bando baten zain daude. Kalteak sortu dituzten egileen berri ere badute nonbait.

## ASTE SANTUKO IMAGINAK IKUSGAI

Aste Santuan zehar egin diren elizkizun eta ekintzen artean Elgetako Andre Mari Jasokundearen elizan ikusgai izan dira "pasuak". Batetik Doloretako Ama eta alboan Juan apostolua. Beraien aurrean heriotzera bidean doan Jesus gurutzea bizkarrean duela; gurutze hau Lorenzo Askasibar Jalotzakoak egin dago. Azkenik hil kutxan dagoen Jesus hila; Jesus hilobiratua eta Doloretako Ama, Segura familiak egin zuen kaperan zeuden. Kapera hau eliz osteko etxeak egin zirenean bota zen. Figurak handiak dira eta lehen herrian zehar eramaten baziren ere gaur egun ekintzak eliza barruan

egiten dira. Azpimarratu egun haue-tarako pertsona batzuk aritzen direla arropak txukundu eta figurak jazten.



Antonio Rodriguez Da Cruz

Galdaragintza arina

**IAPAM**

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak  
Etxaurreak Komunak

Otzango Behetako Baserria. Tel: 860156

## TXANDA HARTZEKO SISTEMA BERRIA MEDIKU KONTSULTAN


**-Egun gutxi barru hasiko da martxan. Errezetak eskatzeko ere txanda hartu beharko da-**

Hilaren zazpitik aurrera sistema berria ipiniko dute martxan. Aste guttiko txandak egongo dira panel baten. Bakoitzak aukeratu du zein egun eta zein ordutan joan, gainera errezetak egiteko ere ordua eta eguna hartu beharko dira.

Aukeratzen den egun bakoitzak kolore bat du eta ordua ere bertan zehazten da. Medikuak 25 txartel izango ditu eguneko eta praktikanteak 18. Sistema honekin ez da zertan joan behar egunean bertan txanda hartzera, bi egun edo

astebete lehenago ere hartu daiteke eta. Praktikantea 10:00etan hasiko da kontsulta pasatzen errezetak txandan-txandan eginez.

Sistema honek urtebete iraungo du eta datorren urtetik aurrera aldaketak iragarri dituzte osasun sailetik. Aldaketak ordenagailua eskuratu bezain laster izango ditugu. Bitartean momentuko sistema honi egin behar jaramon.



## 1997KO AURREKONTUA ONARTUTA

**- Iaz baino bi milioi gehiago izango ditu aurrekontuak, 108 milioi-**

Martxoaren 26an egindako plenoan onartu zen aurrekontua inongo alegaziorik gabe.

Gehiago simple bat izatea nahikoa da onarpen hau egiteko. Kontutan izan behar da, HB-ko zinegotziak ez direla joango pleno eta gobernu ba-tzordeetara "HB-ko Mahai nazio-nala aske egon arte" Xabier Ezpeleta zinegotziak adierazi zuen moduan. Horrela bada, plenoan zeuden EAJ-ko lau zinegotziek aho batez onartu zuten aurrekontuei zegokien puntua.

Aldaketaren bat egon badaiteke ere, oniritzia eman zit-

zaien 97ko aurrekontuei.

Patxi Basauri alkateak argudiatu zuenez, "berandu onartzearen arrazoia, iazko balantzea isteko egon den atzerapena izan da".

Aurtengo aurrekontuan ez da inbertsio handirik egongo, "asko hestutu dugu" gehitu zuen alkateak.

Aurrekontuaren hiru laurdenetako bat, 34 milioi, udaletxeko langileak ordaintzeko dira: alkate, administrari, idazkari, garbitzailer, gabinete, aparejadore... Ondasun eta zerbitzuen erosketen atale-

an, bost milioi industria susta-tzailearen zerbitzuak ordaintzeko dira, iaz baino milioi bat gehiago. Oinarritzko soldata hauei dietak gehitu behar zaizkie, goi karguen kasuan iaz bezala 200.000 pta eta pertsonalaren dietak 50.000 pta gu-txiago (200.000 pta).

Inbertsioen atalean, Pagatzako urbanizaziorako 4.500.000 ptako aurrekontua dago eta San Roke plaza egiteko 3.500.000 pta.

Zergak igo egiten dira orokorrean: ura, zaborra...

**ZABALA**

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



**HERMANOS S.A.**

**EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA**

## Elizamendi

Ez dira garai onenak Ama Birjinarentzat. Eliza hondatzen doan bitartean bertan elizkizunak egiteko arriskua dela eta hain ohitura luzeko umeen bedeinkazioa ere aurten "kaleratu" egin da, martxoaren 25ean, Elizamendiko Ama Birjinaren eguna, San Migel Parrokian egin delarik.

Ez dakigu, noizko itzuliko den Mainddako Elizara garai bateko jai giro eta alaitasuna, baina dudarik ez dago bertakoon lana ez dela bakarrik, behar diren bitarteko guztiak ipintzea Angiozartik kanpo dauden erakunde eta agintean ere badago eta. Bitartean inor ez dezala harrapatu azpian.

## Zabaletan Bolatokia

Ahaleginak egin arren Bergarako Udalak ez du aurrerapiderik ematen Zabaletako Bolatokiarri teilatua egiteko diru laguntzak emateko. Hasiara baten nahiko lan ximplea zirudiena, 250.000 ptako aurrekontua besterik ez du, konplikatua dirudi Udaleko "teknikoentzat". Eta bitartean bertan jokatzekoa zen Gipuzkoako Bolo Txapelketako kanporaketa gabe gelditu gara.

## Abiadura Haundiko Trena

Aurtengo urtearekin batera aurreproiektua bukatzeko asmoa dutela adierazi berri dute Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailetik. Hori dela eta, hasiak dira afektatuak dauden Udalei proiektua bidaltzen aztertu eta zuzenketak egiteko. Angiozarren ere, apirilean, zehatz-mehatz proposamena ezaugu eta gure iritzia emateko aukera izango dugu.

## ZUREZKO ELIZAK EUSKAL HERRIAN

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Diputazioen babespean antolatutako "ARS LIGNEA" erakusketatik ikusgarri honek bigarren parada egin du, oraingoan Donostiako San Telmo Museoa, urte hasieran Bilbon hilabete pasa egon ondoren. Bertan Elizez gain Euskal Herrian zura (egurra) lantzeko egon den trebezia ere ikusgai dugu. Ikusi daiteken bat Angiozarko San Migel Parrokia da, gelditzen diren lanik bikainenetakoa.

### Europar jatorridun lanak

Halako eraikuntza bitxiak ez dira oso ugariak gaur egun, baina garai baten, orain dela 450 urte, oso ezagunak izan ziren gure inguru hauetan, eta inungo arazorik barik jaso zirenak, gainera, bertan zegoen zura lantzeko ohituragatik. Baserri eta orduan sortzen zeuden herrietako etxeak egiten zituzten zurgin berdinek jaso zituzten Eliza hauek ere, zeukatzen esperientzia horretara aplikatuz.

Dirudienez, orduan zegoen merkataritza zela eta, inguruko jendea askotan joaten zen orduan Flandes deitzen zen lurraldera, eta han ikusi tetxuak egiteko era dotore hau eta bertaratu zirenean, harrizko elizen bobedak imitatuz, ekin zioten oraindik teilape zuzenean zeuden eliza guztietan halako lanak bultzatzen.

### Eremu txikian loratu zen artea

Batez ere Deba Garaia eta inguruan gelditzen dira eliza hauek, eta gainera denetatik dago: ermita txikienetatik hasi eta eliza ederrenetarikoraino. Urretxuko Parrokia, Ibarrangeluakoa eta Angiozarkoa dira horietako batzuk, baina beste asko dira, begi ez ohi-

tuei harrizkoak iruditzen zaizkienak, eta askotan herrikoei, bertakoei ere bai. Beste batzuk egurra bistan dute eta efektu bitxia lortzen da gora begiratzerakoan.

Eliza guztiok garai bateko Kalahorrako Elizbarrutiko zati izandakoak dira, eta bertako gotzainak bultzatutako lanak ere izan daitezke. Dena den ez dago dudarik haritzak eta kastainak askoz ere ugariagoak zirela gaurkoekin konparatuz, behin egitea erabakita urrin joan barik aurki zezaketen materialea da eta.

### Angiozarko San Migel Parrokia

Eliza hau gaur ezagutzen dugun itxurarekin 1624koa da, orduantxe egin zioten eta eliza barrutik ikusi daiteken hiru zatidun bobeda nerbiduna. Baina 1594rako planoak eginda zeuden eta hogeita hamar urtetan itxoin behar izan zuten, diru falta alde batetik eta nahi zuten ofizialak ezin izan zutelako ordurarte etorri. San Juan de Anitua eta Juan de Olazabal maisuek burutu zuten gaur arte aldaketa barik iraun duen lan hau.

Angiozar Bailaran eredu honetako beste lan bat ere badago: San Kristobal ermita, baina honek "zerua" deitutako zatia du bakarrik. Honen lan berdina da Santa Katalina ermita, Angiozar erreka-aren eskualdean eta "Altos Hornos" fabrikatik hurbil gelditzen dena.

Beraz badakizue, ez galdu erakusketak hau ikusteko aukera Donostiara joanez gero, martxoaren 6an atak ireki zituenean erakusketak apirilaren 24rarte iraungo du zabalik eta ondoren Gasteizera pasatuko da.

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



Produkturik onenak,  
prezio onenean

Tel:  
76 80 98.

ALDI

# LEHIAKETA

Oraingoan karta ugari jaso ditugu, izan ere, asmatzekoa ez zen batere zaila eta. Argazkia polikiroldegian egin zen gabonetako jaialdikoa da. Bertan herriko musikari askok hartu zuten parte eta musikari horietako bat hautatu eta kitarrajole bat izan da gure lehiaketako protagonista. Bera nor zen denok genekien, baina, ba al zenekiten kitarra dela neskato honek jotzen duen instrumentua? **Eneko Maguregik** hala uste izan du eta arkatza hartu eta guri idaztearren birezako afaria irabazi du.



Oraingoan ez duzu aitza kirik ez idazteko.


## Birezako afariaz gain

### Aitor Elkororen kamiseta

bat ere zozketatuko dugu urteurrena ospatze aldera.

**Kamiseta, Aitorrek berak sinatuko du** irabazlearen izenean.

Pertsonaia honentzako pista batzuk pentsatuta genituen baina onena ezer ez esatea izango da, besteak beste, nahiko erraza baita erantzun beharrekoa. Izena eta abizena eskatzen ditugu. Honezkero jakingo duzue gure helbidea baina dena den Salbador kaleko 2. zenbakian gaudela gogoratuko dizuegu, Kultur etxean. **Zorte on!**



Aitor Elkororen kamiseta eskuratu nahi baduzu idatzi **Goibekokalera**, Salbador 2 kulur etxea Elgeta

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_

Erantzuna: \_\_\_\_\_

Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## KOMIKIA




## Gasen obrak diala ta Elgetan eitten dabizen beste obren gainian ze dakazu esateko?

Elgetan eitten dabizen obra ezberdinak diala ta herrixa nahikua astorauta ikusi dou, ta horregaittik pentzau dou hau galderioi eittia.



**Bihargiña (27 urte)**

Obrak biharrezkuak pentzatzen jataz, gasak eta, esaterako falta eitten dabez. Hala ta be txarto gertatzen dabiz, obria bukatzeka lagatzen daben itxuria daka, zatika eitten dabiz, tapatzen dittue zuluak ta hola lagatzen dittue. Denbora aldetik bastante ondo doiaz, baiña ez dot pentzatzen aurten amaittuko debenik.




**Bihargiña (41 urte)**

Ni Elgetan ez nai asko egoten, baiña gasa ipintzia ta, ondo pentzatzen jataz. Obrak ez nabe asko molestutzen, herrirako ondo pentzatzen jataz. Nik pentzatzen dot aurten amaittuko dabela. Beste herrixetan Elgetan moduan denbora aldetik antzera samar ibiltzen dia, ta administraziunak antolatzen badittu beranduau ondio.



**Bihargiña (46 urte)**

Aspaldittik pentzauta eozen proiektu batzuk dia. Herrirako zerbitzu publiko batzuk dia, danondako oso inportatiak. Gasan almazena ta basia gertatzeka daozelako udarte luza-tuko da, ta Pagatzakua urte amaierarako eittia komendi da.



**Bihargiña (50 urte)**

Neri oso ondo pentzatzen jata Elgetan obrak eittia. Obrak ez dakitt noizko amaittuko dittuen, baiña aurten amaittuko dittue. Poligonokua aspaldi, fabrikak eiñ baiño lehen eiñ bihar zan gauzia da. Elgetan beste herrixetan aiña denbora bihar dabe obrak eitteko.




**Etxekoandria (54 urte)**

Neri oso ondo pentzatzen jataz baiña uste dot ordua dala amaitzen juateko, holan luze goiazelako. Jentia esaten dabilena egixa bada oiñgo urtian ez dabe bukatuko. Ni asko ez nabe molestau, eiñ dittuen zuluak segittuan itxi dittuelako.



**Jubilaua (64 urte)**

Neri asko gustatzen jataz. Oiñ momentuan ondo doizela esan leike. Hala ta be laga dittuen zuluak ez dakitt tapauko dittuen. Obrak nahiko aurreratuta jua arren ez dot uste aurten amaittuko dittuenik. Obra danak zikinak dia, ia honek piskat garbittuauak eitten dittuen.



Jesús Marí Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.

Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284



**♈ Aries:** Maletak beteta ekarri dittuk/dittun? Bai, erroa zikiñekin beteta.

**♉ Taurus:** Zorte ona eukiko dozue esaminetan. Aupa azkena da ta.

**♊ Geminis:** Oporrak deskantzurako dia eta EZ kantzatzeko. Espabilau!

**♋ Cancer:** Sasoi onena eukikok/eukikon oingo hilian. Aprobetxau oportunidadea.

**♌ Leo:** Laga euzkittako antiajuak, jantzi graduautakuak eta benga lanera.

**♍ Virgo:** Ahaztu oporretako abenturak ta hasi betiko rutiniakin Willy Fog.

**♎ Libra:** Makiña bat KH eñ ditzuzula? Bai, baina katxixakin eztok/ezton!!!

**♏ Escorpio:** Oingo hillian gau ta egun eñ biharko dozue lan poltxikuai itxuria emateko.

**♐ Sagitarius:** Eztotzuela euzkixak jo? Hurrenguan bez keixpetan egonda.

**♑ Capricornius:** Zure kuttunai oparixo bat eñ, ongi etorriko jatzu eta.

**♒ Acuaris:** Ez hasi datorren urteko oporrak planiatzen lehengo lekura fango haiz ta.

**♓ Piscis:** Lana ondo etorriko jatzu zure gorputza sasaira bueltatzeko, Tri-pontzi!

## Juana Errasti Jubilatua (78 urte)

**- Zetan pasatzen dozu denporia?** Batzutan mendi ibilli bat eitten, beste batzutan arantzak ebaten erreka onduan, beti pasatzen juat denporia zeoze eitten.

**- Ze lan da gogorra u ortukua edo etxekua?** Ortukua, oiñ ez jakau ortuik baiña nik eñ bihar dana eitten juat.

**- Jubilauak ondo bizi diala entzun dou.** Bai, ni neu ondo bizi nok ta nere moduan biziko diala danak uste juat.

**- Ze bentaja daka jubilau izatiak?**

Denpora libre gehixau jakau nahi juauna eitteko, lehen biharra eitten giñuan ta oiñ biajiak eitteko ta, denporia jakau.

**- Radixua ala telebisiñua?**

Radixua, radixo zalia nok ni.

**- Programaik gustokuena?**

Arraten jotan dittuen musikak asko gustatzen jatazak.

**- Futbola ikusten dozu?** Ikusi

bai, etxekuak asko ikusten dabelako, baiña entenditu ez juat eitten.

**- Honek herri-xonek daukan gauzaik gustokuena?** Ettaixat ba, neri mendixak asko gustatzen

jatazak, neri Elgeta dana pentsatzen jatak politta.

**- Baso lanik eitten dozu oiñdiokan?** Bueno, nik eitten juatenai lana ezin jakok deittu, baiña ibili nok piñua sartzen ta horrek garbitzera be juan bihako juat.

**- Bazkaltzen ze eraten dozu?** Ura.

**- Porru patatak ala hamburgesak?** Porru patatak, berduria.

**- Mendixa edo itsasua?** Mendixa.

**- Lehengo Elgetatik oiñgora ze aldatu da?** Oiñ etxe barrixak ta fabrikak eñ jittuek. Ambiente aldetik be aldatu dok, gu gaziak giñuazentian domeka atzaldero gramoliakin ta dantzatan ibiltzen giñuazan plazan.

**- Beraniatzera nora juango ziñake?** Oiñ ez nok iñora juatan baiña leku askotan izanda najaok beraniatzen:

Benidorm, Palma, Portugal, Erroma...

**- Pintxoik gustokuena?** Rabak jaten jittuat nik.

**- Goibekokaleko ze atal irakurtzen dozu gustoren?** Dana ikustia gustatzen jatak. Ale danak gordeta jakazat lekutxo baten.



**IBAIBA-RRIAGA**  
GARRAIOAK  
Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

**M<sup>A</sup> Karmen Lenzeria**  
Lentzeria eta kosmetika gaiak  
Salbador zeharbidea.  
Tel: 789040

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, sailheskia erreta.  
**TABERNA**  
SANA DE ROKIA  
DATE XEAL  
tel: 768273

# MUGIMUNDU HAUNDIKO HILABE

-Gaztetxea ireki zeneko urtea bete da eta martxoa ospatu



Azpimarratu behar da, umeak ere beraien eguna izan zutela eta arrakasta handikoa izan zen; umeak beti daude prest ondo pasatzeko eta horrelako ekintzetan beraien kontutan hartu izatea eskertzen dute.

Jaia eta dibertsioaz gain informazioa. Lan honetan aritu ziren Itoizko Koordinakundekoak. Bideo emanaldia eta hitzaldia antolatu zen Ozkarbi elkarteetan. Han jaso genuen

Itoizko bailaran gertatzen ari diren gehiegikerien berri; han bildu zirenei konpromezu bat eskatu zieten Koordinakundekoek: lau haizetara zabaltzea beraien mezua. Aste Santuan bertara hurbildu denik ere egon da.

Umeak ondo pasatzen badute nagusiak zer esanik ez, jaten eta jokuak begira. Bazkaria antolatu zen egunean arratsaldean ondo pasatzeko kirol eta jokuen saio bikaina egin zen.



**OSTATU**  
**JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18

Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

# URTEA, URTE BETEKO MUGIMENDUA

...damez antolatu. Asmoa, urtea ekintzaz betetzen jarraitzea-



Bazkaria ederra eta arratsaldeko menua hobea. 50 pertsona bildu ziren jai giroan. Eguzkia mendebalean gorde zen arte, herritarrak gazteak nola "entretenitzen" ziren ikusteko aukera izan zuten. Jokuetatik eliminatu ahala albo batera esertzera; bazkaria bukatu ahala siestara.



Gauean dantzarako eta festarako ordua heldu zen. Anje Duhalde lehenik eta Latzen eta Furunda bestetik gauari sua emanaz. Bi kontzertuetan jende asko mugitu zen eta azken dantzak elkarri estu-estu loturik

egin ziren. Herriko jendea mugitu da dena ondo ateratzeko eta gehiago edo gutxiago denok parte hartu dugu, hitzaldi eta ekintzak antolatzen.



Jaia, musika, goizaldeko orduak... Dena den biharamunean gai dira batzuk behintzat mendiko irteeeretara joateko. Lehena, "fondu hartzeko" Intxortara egin zen. Hemendik aurrera nork daki noraino iritxiko diren.

Herrian dinamika piskat sortu dute eta egun hau urteari amaiera emateko aproposa izan da, txapela kentzeko modukoa. Orain eguneroko jardun neketsua geratzen da: Asanbladak, kartelak, garbiketak, ikastaroak, mantentzen diren lanak, hitzaldiak...



**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262  
tel: 789057-768025

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



**KONTXI  
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

# Ikastolakoak *Goibekokale* ezagutu nahian

Kaixo *Goibekokaleko* irakurle guztioi:

Gu 2. DBH-ko ikasleak gara. Oraingo honetan, *Goibekokalek* 2 urte betetzen dituela eta, genituen zenbait duda kentzeko elkarrizketa bat egin diogu erre-dakzio kontseiluko bati. *Goibekokaleko* Haritz Gallastegiri suertatu zaio bada gure galdera sorta:

- Zenbat denbora zaude *Goibekokale* aldizkarian lanean ?

Hasi denetik, orain dela pare bat urte. Orainbigarren urtea.

- Zein atal aukeratu zenuen lan egiteko ? Gustoko al duzu ?

Aukeratu? Aukeratu bat ere ez, banatu egin zen, eta bueno, tokatu zena tokatu zen. Gustoko dut.

- Beste baten atala hartuko al zenuke ?

Segun, edozein igual ez. Ez dakit, gehien gustatzen zaidana kirolak dira baina, beste batentzako bazen egin beharko nuke.

- Lehiaketara, gutxi gorabehera, zenbat pertsonak idazten dute ?

Ez dakit ba, hilabete batzuetan gehiagok bestetan baino, baina ez dakit seguru zenbat.

- Ordaintzen al dizute, *Goibekokalen* lan egitearren?

Eeeeeezzzzz! ke ba !

- Zer dela eta egiten duzu lan hau ?

Bueno lehenik eta behin

kazetari izateko esperantza daukadalako eta ba oso ondo etortzen zaidalako, bitartean herriari laguntzerik badago ahaleginak egiten dira.

- *Goibekokale* desagertu arte lan egingo duzu ?

Ez dakit noiz desagertuko den eta...

- Zenbat pertsonak hartzen du parte *Goibekokale* aldizkarian ?

(barre egiten du) Hain galdera zailak ez egin, eh! Erredakzio kontseiluan bost gara eta gero laguntzaile eta abarrekin 13 edo 15 edo. Aparte kolaboratzaileak.

- Ondo konpontzen al zara beste partaideekin ?

Bai ondo konpontzen gara elkarrekin.

- Lan asko ematen al dituzte ?

Ha, ha... zeintzuk, nere lagunek? Ba ez (bestela jo egingo naute).

- Inprentakoek zenbat irauten dute, *Goibekokale* inprimatzen ?

Egun bat eta erdi edo bi gutxi gorabehera

- Beti lan bera egi-

ten al duzu? Ez al zara aspertzen? Bai, gehienetan bai, kirolak egiten ditut eta beste batzuetan elkarrizketak. Ez nahiz aspertzen.

- Angiozarko atala zuek egiten al duzue?

Ez, Angiozarkoek egiten dute eta gero guri bidaltzen digute.


- Zenbat denbora irauten duzu kirolen orriak egiten? Ikasten eta aldizkarian batera aritzeak arazorik ekartzen al dizu?

Astero eta gero, ba, azkenengo egunen batean dena egiten dugu. Ez nere lana kazetari izatea da.

- Asko ligatzen al da kazetari izanda?

Ha, ha , ha,... zer? zer? zer?...Bai. Ha, ha, ha.

Eta horrela Haritz Gallastegiri susto galanta eman eta gero, gure ikastolako orrian ez zaizkigu hitz gehiago sartzen.



**VIVO**  
Janari  
denda

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus  
Arrazola

**E HARATEGIA**  
**A S T I**

San Roke 6  
tel: 768168.

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

**P a t x i T a b e r n a**

## MINGAIN BETEA Sukaldaria: Eider Sarasua (Elgetako Gazte Asanblada)



### NOLA PRESTATU:

- Txanpinoiak egiteko, kazuela batean kipula eta berakatza egiten jarri ondo xehetu eta gero. Su baxuan ondo bigundu artean laga. Ondoren txanpinoiak zatituta bota, ur guztia lurrundu eta gero, ardo zuri eta ogi birrindu pixkat bota saltsa sendotzeko. Su baxuan egiten utzi bigundu artean, bukaeran perrexil xehetua gehitu.
- Sutatik kanpora txanpinoiak bexamelarekin nahastu.
- Gero mingain zati bat hartu eta gainean bexamelarekin eta txanpinoiekin eginiko saltsa jarri. Honen gainean beste mingain zatia.
- Bukatzeko urun eta arrautzetan pla-pla egin (rebozatu).

### OSAGAIK: (4 pertsonarentzat)


- 8 mingain zati
- Txanpinoiak
- Bexamela
- Txanpinoiak egiteko:
  - Kipula
  - Berakatza
  - Olio gradu batekoa
  - Ogi birrindua, ardo zuria eta perrexila
- Bexamela egiteko:
  - 1/2 litro esne
  - 45gr. gurin
  - 55gr. urun
- Mingaina betetzeko: Txanpinoiak eta bexamela
- Arrautzak eta uruna



- Gomendioa:** - Nahi izanez gero txanpinoiekin lagundu daiteke plater hau.  
- Mingaina biguna badago platera oso goxoa aterako da.

## HAIZEA

## TABERNA



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

Tel: 768256

## ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste  
dimentsio batetara!

Tel: 768078

## ELKOROK EUGI IZANGO DU AURREZ- AURRE FINALAURDENETAN

Ez da erraza izango. Aitor Elkorok Patxi Eugi txapelketa gaitzitu beharko du eskuz banakako finalerdietan egoteko. Partidu hau Iruñeako Labriten jokatu da, Eugiren "etxean" alegia.

Elgetar pilotaria txapelketa bikaina jokatzeko ari da. Askok eta askok txapelketa honetara atzeko atetik sartu ziren pilotariak ez zute-la maila emango uste zuten txapelketa maila orokorra asko jeitsieraziz. Elkorok eta Titinek hori uste bat besterik ez zela argi utzi dute. Aitorrek, txapelketa lehen kanporaketan beste "infiltratu" baten aurka jokatu zuen, Jorge Nagore irurtzundarraren aurka. Hasiera batean partidu orekatua zirudien garrantzi honetako partidu baten aurrean bai bata eta bai bestearen erantzuna nolakoa izango zen inork gutxi baitzekien. Eibarreko Astelenan jokatu partidu hone-

tan Aitorrek ez zuen inolako arazorik izan. Partidu bikaina jokatu zuen bi eskuekin pilota bikain atzeratuz. Azken emaitza 22 eta 10ekoa izan zen.

Bigarren kanporaketan Irazola abadiñotarraren aurka jokatu zuen Elkorok. Partidu honetarako, aurreko partiduan ikusitakoaren ondorioz, faborito argia zen eta ez zuen hutsik egin. Partidu guztian zehar aurretik joan zen Irazolaren defentsa alde guztietatik gaitzitu. Lehenengo kanporaketan bezala 22-10koa izan zen emaitza.

### Ubera II.a Euskal Ligako txapelketa

Xabier Uberak Euskal Ligako banakako txapelketa garaipena lortu zuen Martin bergararra 18 eta 6 gaitzitu. Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu partidu hau nahiko gaizki hasi zen gure orde-

kariarentzat Martin = 4-0 aurreratu baitzen, baina Xabierrek alde hori murriztu eta gaitziteko ez zuen arazorik izan bergararra 6an utziz.

Elgeta jokatu ziren hain zuzen Euskal Ligako bigarren mailako finalak. Buruz burukoan Berazaluze

VII.ak erraz gaitzitu zuen Goñi. Binakako finalean ere antzerako zerbait gertatu zen. Zearrak eta Telleriak 11 tantutan utzi zituzten Varela eta Fernandez eta hurrengo urtean Ohorezko Mailan jokatzeko aukera izangodute.

Gaia aldatuz esan, Deba Arroko torneoaren finalerdietako joaneko partidua jokatu direla dagoeneko gure ordezkariak emaitza nahiko kaskarrak lortuz. Kadeteetan Elgeta ordezkatzeko duten abadiñotar gazteek hamaika tanto besterik ez zituzten egin finalera sailkatzeko aukera gehienak galduz. Jubeniletan ere ezin izan zen garaipekin lortu. Ubera II.ak eta Antxiak 19 tantu egin zituzten Zabaleta eta Alberdi bergararren aurka eta finalerako sailkatzea nahi badute asko hobetu beharko dute itzulerako partiduan. Azkenik, nagusietan Ubera I.ak eta Berraondok 22 eta 15 gaitzitu zituzten Errasti anaiak. Hauek finalera sailkatzeko aukera handiak dituzte.

### 4 t'erdiko txapelketa hasi da

Dagoeneko hasi da 4 t'erdiko barruko beste txapelketa bat. Lehenengo partiduetan Elgeta ingurukoak jokatu dute pixkanaka-pixkanaka maila gehiago duten pilotarietara txanda emateko. Txapelketa irabazteko aukera gehien dituzten artean aurreko urtean finalera heldu ziren Berraondo eta Otaegi izango ditugu. Hauek gain kontutan hartzeak dira Berazaluze VII.a, Zearra eta Tirapu.




Goñik ezin izan zuen ezer egin Berazaluzeren aurrean.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186  
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604  
ARRASATE



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

## TAPEM S.A.

Trokela eta estanzak  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

## JOIXON BERTAN, PARTIDURIK GALDU EZ DUEN TALDE BAKARRA

Txapelketa, erdialdera heldu da eta Joixon Bertan da txapelketa guztian partidurik galdu ez duen talde bakarra. Orain arte lau partidu jokatu dituzte eta lauretan garaile atera dira. Azkenean, Txalaxoken aurka, lau eta bi galtzen joan ziren baina azkenean 5 eta 4ko emaitzaz irabazi zuten. Partiduko izarra Alaine izan zen lau gol sartuz. Horrela jarraituz gero txapelketa partidurik galdu gabe amaitzeko aukera izango dute beraien nagusitsuna argi utziz.

Mutiletan lehen itzulia bukatu da dagoeneko. Azken urteetan bezala Txapela lehen postuan ageri da sailkapenean Angiozarkoak atzean dituztela. Bar Paseo (ihazko txapeldunak) eta Urien hirugarren eta laugarren postuan ditugu 8 punturekin berdinurik. Lau hauek eta bosgarren postuan dagoen Luzelektrikanpaluren - azkenaldian ondo jokatzen ari dirarte egongo dira jokoan finalerdietarako sailkapena ematen duten lau postuak.

Taldea	J	I	B	G	P
Txapela	7	6	0	1	12
Angiozar	7	5	1	1	11
Bar Paseo	7	4	0	3	8
Urien	7	4	0	3	8
Luzelek.	7	3	0	4	6
Alferrak	6	2	0	4	4
HHH	7	1	1	5	3
Patxi Taberna	6	0	2	4	2

Taldea	J	I	B	G	P
Joixon Bertan	4	4	0	0	8
Ri-Rau	3	1	0	2	2
Txalaxok	2	0	0	0	0



Askasibarrek laugarren denboraldia beteko du afizionatu mailan

Oskar Askasibarrek indarberrituta hasi du aurtengo denboraldia. Aurreko denboraldia berarentzat ona izan bazen ere ez zuen garaipenik lortu eta aurten garaipenak lortzea du helburu, "gure helburu bakarra lasterketak irabaztea da, ez dugu bestelako helbururik" adierazi zigun Oskarrek.

Aurten taldearen izena aldatu badute ere -lehen Arrasate T.T. zena orain Born Jay da- taldeko partaide gehienak pasa den denboraldikoak izango dira. Aipatzekoa da aurten bi kataluniar ariko direla talde honetan.

Denboraldia Gorlan hasi zuten eta orainarte bost lasterketatant parte hartu dute. Beraien hurrengo helburu garrantzitsuena Granadako itzulian lan ona egitea da, lasterketa hori afizionatu mailan dagoen gogorrenetakoa baita. Lasterketa horretan Sierra Nevada igo beharko dute.

Bestalde, hilaren 12an, Uberan, Euskadiko Mountain Bike Jeitsieren Opena izango da. Bertan Patxik, kirol honetan Elgetak duen ordezkari nagusiak, hartuko du parte. Ez da bakarra izango jeitsiera horretarako beste zenbait ordezkari ere prestatzen ari baitira (Oier Villa...). Badakizue, hilaren 12an denok Uberara gure ordezkariak animatzera.

itzulpenak  
lanak ordenagailuz  
interpretari lanak  
transkripzioak

Tel: (94) 6583017  
6821294

Zure publizitatea  
hemen azaltzea  
nahi baduzu deitu  
telefono honetara:

78.90.85

ELKORO TORLOJU LANTEGIA  
DEKOLETAIA ETA  
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire giro-  
tua.

Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

M<sup>a</sup>  
ESTHER

Tel: 76 81 67

## HERRIKO KALEETAN HISTORIA

**-Torrekua eta Torrezar dorretxeak eta Azkarateko jauregi errenazentista, garai bateko gerrate eta aberastasunen erakusgai-**

Aurreko aleetan herriko baserriei errepassoa eman ondoren oraingoan herri barruan aurki daitezken aspaldiko eraikuntzei buruz arituko gara. Etxe hauen nondik

norakoa ulertzeko XIV. menderaino joan beharra dago. Garai haietan Elgetako paraje hauek, Maiaren lurrak bezala ezagutzen ziren, 1335. urtean Alfontso XI. ak Elgeta izena

ezarri zion arte. Urte horretan sortu bazen Elgeta, badirudi Uriarteko Amaren inguruan bilduriko baserri batzuk bazirela.

Carta puebla lortzearekin batera, pribilegio batzuk ere jaso zituen. Pribilegio hauen ondorioz, Elgetako lurrak Deba errekaraino hedatzen ziren. Honek herriaren aberastea ekarri zuen, eta baita eraikuntza ederren sorrera ere.

### **Mugako gerrateek dorretxeen eraikitzea ekarri zuen**

Elgeta mugan kokatuta egoteak beti gerrateak gertutik ezagutzea eragin zuen, eta ondorioz, lehen aipaturiko etxeek, dorretxe funtzioa betetzen zuten. Luzera, gerrate leku izateak kalte ugari ekarri zizkion herriari. Heriotzez gain, etxeak kiskalita geratzea eta herriko aberastasunen desagertzea ekarri zuen. 36. urteko gerrate zibilaren ondorioz etxe ugari desegin ziren.


Herrian badago etxe hauen adibide franko. Gehienak goiko kalean daude hau baita gerrate zibilean ondoen geratu zen aldea. Adibide dugu Ibarluzetarren etxea. Etxe honen eta elizaren tartean zegoen Elgeta babesten zuen harresien atea. Gaur egun bisagren zati batzuk eta gaineko arkuaren aztarnak ikus ditzakegu.

Kalean beheara etortzen bagara, lehenagoko beste jauretze bat aurkituko dugu. Gaur egun batzokia dago bertan kokatua. Etxe honetan bizi izan zen Zuloaga margolari eibartarra. Etxe honek Jesusen armarrria dauka, gotiko-florido karaktereekin. Armarrri hau Elgetako beste etxe batzuetan ere aurki daiteke. Ekialdean berriz dorretxe baten basea ikus daiteke, dorretxe honen gainean izan zen



Garai bateko Elgeta babesten zuen atea, elizaren eta gaur egun Ibarluzetarren etxea denaren artean zegoen. Oraindik ere atearen bisagrak eta arkuaren zati bat ikusten dira.





Torrekua etxeko ataria da. Atariaren gainean 1564ko data agertzen bada ere, lehenagokoa dela uste da.

eraikia gaur egungo jauregi errenazentista.

Torrezar ere lehenago dorretxe izana dugu, gaur egun guztiz eraldatua agertzen bada ere. Torrekuak berriz lehenagoko dorretxe itxura jarraitzen du izaten. Dorretxe honek armarri bat dauka Abridio izenarekin. Armarri honetan 1564. urtea agertzen bada ere etxearen beheko aldean dagoen atariak lehenagokoa izan daitekeela agerian uzten du.

#### Maalako ermita

Aurrerago aipatu dugu nola etxe asko urteen eraginez desagertzen joan diren, hauetan azkena Maalako etxe eta ermita dugu. Etxe honek sekulako garrantzia izan zuen ertaroko elgetarrengan, ospitale funtzioa betetzen zuen eta. Ospitalean janaria eta babesa ematen zitzairen beharra zutenei. Beranduago artekaleko etxe batera aldatu zen ospitalea. Beranduago Maalako ermita eta etxea, monjen bizileku izan zen. Gainera behean areto bat zuen antzerkietarako. Askok gogoratuko dituzte hango eskolak eta bertako maistrak. XVI.

mendekoak badira lehen datuak aurretik ere ba omen zegoen. Han biltzen zen San Sebastiango kofradia. Ermita honen garrantzia handia zen, inguruko auzoetako hilak hemen uzten baitziztuzten anderoak erropak aldatzen zituzten bitartean. Ermita zegoen tokian eskolak eraiki dituzte eta udalak gotzaiarekin egindako hitzarmenean hartu zuen konpromezuaren arabera beste bat eraiki beharko du aurrekoaren orde.

Ikusi duzue herrian ere badugu zer ikusirik, historiaz betetako etxeak, ermita ugari eta inguruan baserri mordoa. Berauek topatu eta aztertze gogoia izatea besterik ez dizuegu eskatzen, hurbilekoa izateak ez baitu esan nahi eskasagoa denik. Datorren aletik aurrera Angiozarko

baserriei buruz arituko gatzazue. Hango berri bertakoek erakutsiko digute eta ziur hainbat gauza kurioso ikasiko ditugula.



Jesua eta Mariaren armarrria da. San Roke kaleko etxe batena da hau eta Azkaraten etxeak eta Torrekuak ere badute oraindik.

*Maalako ermita duela gutxi bota zuten eskolak eraikitzeko. Lehenengo idatziak XVI. mendekoak dira. Bertan biltzen zen San Sebastianeko kofradia. Udalak eta Gotzaiak hartutako erabakiaren arabera, beste ermita bat eraiki beharko du udaletxeak.*

## IXAN ZEIKIEN

Antziñan, eta ahoz aho jaso dien istorixek esaten dabenez, urrezko uliak zittuan dama bat bizi ei zan gure artian. Dama horren izena Mari zan, eta lurpian (ez Durangon, ez Eibarren) ekan bere etxia. Kanpora urten nahi ebanian mendixetako koba zuluetatik urtezte eban.

Ingurutako koba zulorik ezagunena Anboton ekan, eta hortik urten eta askotan ibiltzen ei zan mendi batetik bestera: Oizera joaten zan, Udalatxetik be ibiltzen zan, eta baita Aralarren, Aizkorriñ eta beste zenbait lekutan be bai. Mendi batetik bestera hegaz joaten zan, suzko bola baten itxuria hartuta.

Eta mendixetako koba zuluetatik urtetzen ebalako suzko bola bihurtuta Euskal Herriko leku guztietatik ikusten eben, eta horrextetik zan haiñ ezaguna.

Leku guztietan ezaguna zanez, Mari horrei hainbat eta hainbat izen emon otzen. Horren artian, hemen ingurukuek Maya esaten otzen. Hala izango zan, eta ondo ezagutuko eben, ze Mayak Intxorta eta Azkonabitxa bittarteko mendilepua ekazen solo batzuk, edo jentia hori esaten zeban behintzat.

Halako batian Gaztelako erregia zan Alfonso XI.enak funtzio militarra izango zeban herri bat sortzia bururatu jakon. Pen-

tsau eta eiñ, aproposoko lekua zala-eta, Mayaren soloetan eittia bururatu jakon. Eta hala jaso eban berak emandako hiri-gutunean "... la puebla nueva que se face en los campos de Maya a la cual puebla ponemos por nombre Elgeta,...". Herri barrixari Elgeta deittu otzan, ze ixan be elgeak soluak die, horregaittik, elgeta edo soloeta solo asko daozen lekua ixango zan. Azken batian Mayaren soluak. Maya izena gordetzea be ekan izango egokixa, horrek gauzok jentilen siniskerixak zielako eta benetako erlijioñua, eta batez be erregiarena, kristautasuna zalako; eta erregia kristaua ixan ezkeru, beste guztiok be derrigorrez ixan bihar.

Horregaittik, Maiak haserre jarraitzen dau eta noizian behin haserre horren barri emoten dozku, esate baterako abuztuan bota eban harrixa. Esaten ebenez, berak edo bere seme Mikelatsek bialtzen dittu trumoi lainuak lur azpittik, eta berak edo bere mendekoren batek —Odei edo Eatek— eruaten dittue gura daben lekura. Eta ez dau gehixagotan eitten noixian behiñ elgetarren bat Anbotora joaten dalako Mari bixittazera, eta horrekin konformatzen dalako. Azkenik,




Sorginak ekaitza sorterazten. (De Lamiis, 1489).

esan pelikuletan jartzen daben moduan, esandako guztixak benetako historiarekin zerikusirik badauka kasualitate hutsa dala. Eta hori holan ixan bazan sar neixela kalabazan eta ager neilla Lurpeko barran.

Enrike Gorrotxategi.

tel:768151



gustora  
sentituko  
zara.

**BILTEGI  
DENDA**  
Zugandik  
gertu behar  
dugun beste  
Salbador 24 Tel: 768206



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.



Argazkia: Itziar Olabe

## Euskal Herria korrika!

Oraindik ere pasa berri den KORRIKA ez dugu ahaztuta baina, guk gogorarazi nahi dizueguna KORRIKA 2 da. Lehenengo korrika ospatu zenetik (1980) haizeak nahiko bazter astindu ditu. Hala ere, goiko erretratua ez da ordukoa, bigarren ediziokoa baizik.

Lehen esan bezala, korrika 1980an jaio zen, euskararen aldeko ekitaldiak puri-purian zeudenean. Urte batzuk lehenago "Bai euskarari" jaialdi historikoa ospatua zen, eta garai hartan hasi ziren ikastolen aldeko jaiak antolatzen (Kilometroak, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats). Testuinguru honetan, eta antza denez afalondo batean, helduen euskalduntzeak euskararen berreskurapenean duen garrantzia azpimarratuko zuen ekitaldi bat egiteko ideia sortu zen zenbait AEKko kideren aldetik eta, ekitaldi hori Euskal Herri osoa zeharkatuko zuen lasterketa erraldoia izan zen, KORRIKA.

Erretratuko Korrikalarien izenak: Mari Karmen Irazabal, Mari Asun Agirre, Migel Arantzeta, Mari Angeles Gerediaga eta azpialdean Itziar Olabe (lekukoa eraman zuena) eta Bego Izagirre.



Euskaraz bizi, hitz egin eta irakurtzeko Elgetako EAJren partez, aurrera *Goibekokale*

Ibargarai, 11-13  
BERGARA  
Tel - Faxes: 767058



**MODELO BERRIAK**  
Kalitate hobea preziorik onenean!



**OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU**



**LILURA**

Edertze Institutua

**DEPILAZIO  
PROGRESIBOA**

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

*Has zaitetz oraintxe!*

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 76 31 71